

2023/00000300 DEKRETUA

DEKRETUA: Hernanin, 2023/02/15

Hernaniko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko azaroaren 24an, "Hermuba" Hernani Musika Bandarekin hitzarmena onartu zuen.

Hitzarmenaren 1. artikuluan jasotzen da Hernaniko Udalak dirulaguntza ordainduko diola elkarteari. Elkarteari aurkeztu du 2022 urteari dagokion jarduera memoria.

Hitzarmenaren 2. artikuluan jasotzenenez, hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, hau da, 2022ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31 artekoa, eta lau urtez luzagarria.

Hernaniko Udalaren 2023 urteko aurrekontuak jasota dauka Hernaniko Musika Bandaren aldeko dirulaguntza izenduna, eta bat dator 2023 urtean indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoarekin.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT:

"Hermuba" **Hernaniko Musika Bandari 96.000 euroko** dirulaguntza ematea. Gastu hori Hernaniko Udalaren aurrekontu partida honen kargu kontabilizatuko da: 02.481.03.334.00/2023. Kopuru hori lau zatitan ordainduko da, otsaila, maiatza, abuztua eta azaroaren hasieran.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa udal idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea.
Sinatua: udal idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU2399c9ac-6e68-4f66-b966-86511ae1a0b4**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>